


Altza

# Arriberrri zaharberrituta

Azken hilabeteotan Arriberrri kalean eta ingurumarietan zenbait lan egin ditu Udalak. Auzotarrek hanka sartze batzuk zuzendu beharra dagoela diote.

**D**enbora luzez Arriberrin izan ez bazara, Casares kultur etxea igaro orduko aldaketak sumatzen hasiko zara, errepidea zabaldu dute eta. Lanak egin aurretik, bi norabideko kale honetan, bi ibilgailu gurutzatzen zirenean, komeriak izaten ziren. Izan ere, alboetan utzitako autoek errepidea estutzen zuten. Egun, baina, errepidea zabalagoa da, eta ez da halakorik gertatzen. Bi auto gurutzatzen direnean, ez bata ez besteak ez dute gelditu beharrik izaten elkarri lekua uzteko. Arriberrin, bestalde, ibilgailuak uzteko leku batzuk kendu dituzte, baina Tomasene base-riaren atzealdean 100 bat autorentzako aparkalekua egokitu dute.



Bizilagunek zabor biltegien ondoan jarritako eserlekuak lekuz aldatzea nahi dute.

## Eserlekuak, beste aldera

Bestalde, kale amaieratik gertu, eserlekuak eta lorategitxo moduko bat atondu ditu

Udalak. Auzotarrek, ordea, eserlekuak lekuz alda ditzaten nahi dute. Batetik, eserlekuak zaborrontzien ondo-ondoan jarri izana salatu dute. Bestetik, bizilagunek diotenez, "eserlekuak dauden tokian haize-korrante handi samarrak izan ohi dira. Bankuetan batik bat zaharrak esertzen direla kontuan hartuta, komenigarria litzateke eserlekuak kalearen bestaldean jartzea". Hala egingo balute, gainera, gaur egun eserlekuen ondoan dagoen lorategitxo zabaltzeko aukera legoke, auzotarren iritziz. Azkenik, estalkirik ez duten bi zaborrontziei lehenbailehen estalkia jartzea nahi dute Arriberriko bizilagunek, "usain txarra darie eta".



Gaur egun, Arriberrri kale hasieran, soilik alde batera utz daitezke autoak.

## Haur eta Gazte Astea

Urriaren 3tik 11ra, Haur eta Gazte Astea egingo da auzoan. Ostiralean, hilak 3, auzoko gurasoetako Alizako haur eta gazte taldean aurkezpena egingo zale Casares kultur etxean, 18.00etan. Asteartean, Joxean Muñoz eta Txabi Basterretxearen "Karramarro uhartea" marrazki bizi-dunetako filma eman go da Altza kultur etxean (Larrazko pasealekua 55), 18.00etan. Hilaren 11n, ostirala, Gazte Gaua egingo da Altza kultur etxean bertan. Batuk Bai taldeak batukada eta capoeira joko du 19.00etan. Ondoren, Retumbo Malambo Show talde argentinarrak perkusioa, umorea eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du. Nabarmentzekoa da, azkenik, aste osoan kirol lehiaketak eta tailerak egingo direla auzoan.



Arriberrri / ALTZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxeoa eta Altza Polikiroldegia ondoan eta autobusez bazatoz, hobe! Autobus lineak 13, H6, 24 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA